

BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Guk konbinazio bat egitea erabaki dugu, alde batetik zerbitzu automatizatua aplikazioaren bitartez, bezeroak zerbitzuak jaso ahal izango dituelako bertan eskatuta, lokal fisiko batera joan gabe. Gainera, zerbitzu pertsonalizatua eskainiko dugu bezeroek dituzten zalantzak argitzeko eta zerbitzuak eskaintzerakoan laguntza pertsonalizatua izango da etxean eskainduko ditugulako. Bezeroekin beti kontaktuan egoteko, hainbat baliabide erabiliko ditugu, astero mezuak bidaliko dizkiegu, noiz behinka deskontuak jarriko ditugu eta haien berri emango diegu. Horrez gain, sare sozialetan gauzak igoko ditugu maiz. Gainera, bonoak egingo ditugu, adibidez bost erostean lau ordaindu behar izango dituzte. Hortaz aparte, beste enpresa batzuekin kontaktuan jarriko gara haiekin salmentak zihurtatzeko.

